

PRENTSA-OHARRA

Bilbo dibulgazio zientifikoaren hiriburu bihurtuko da Bilbo Zientzia Plazaren eskutik

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako Bilbo Zientzia Plaza (BZP) jaialdiaren zortzigarren edizioa irailaren 17tik 30era itzuliko da, hitzaldi, erakusketa, bakarrizketa eta ikuskizunekin, non zientzia izango den protagonista

Beste behin, ekitaldiaren hitzordu nagusia aurten 15 urte beteko dituen Naukas Bilbao izango da. Urteurrena edizio berezi batekin ospatuko du, berritasun esanguratsuekin

Berrogeita hamar ikertzailek eta zientzia dibulgatzalek baino gehiagok hartuko dute parte jaudueratan. Euskalduna Bilbao, Bidebarrieta Kulturgunea eta Bizkaia Aretoa - EHU izango dira eszenatokiak

Bilbon, 2025eko irailaren 11n. [Bilbo Zientzia Plaza](#) (BZP) ekimenaren zortzigarren edizioak Bilbo hartuko du irailaren 17tik 30era, hiria ezagutza zientifikoa maite dutenen eta profesionalen topagune bihurtuz.

Hitzaldiekin, tailerrekin, ikuskizunekin, bakarrizketekin eta erakusketa eta zineforum banarekin osatutako egitarauan berrogeita hamar ikertzailek eta dibulgatzalek baino gehiagok hartuko dute parte. Ekintzak Euskalduna Bilbaon, Bidebarrieta Kulturgunean edota Bizkaia Aretoa – EHUn egingo dira eta guztiak doakoak izango dira.

Naukas Bilbao: 15. urteurrena

Beste behin, hitzordu nagusia **Naukas Bilbao** izango da. 15. urteurrena ospatuko du aurten eta Euskalduna Bilbao zientziaz eta umorez beteko du irailaren 19an eta 20an. **Naukas** dibulgazio zientifikoko plataforma eta **EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak** antolatuta, urteurren edizio berezi honek berrikuntza handiak ekarriko ditu.

Horien artean, nabarmentzekoa da **Naukas Pro** programa orokorrean murgildu izana. Proposamen horretan, zientzialariekin eta ikerketa-zentroetako kideek beren ikerketak eta esperientziak partekatzen dituzte. Besteak beste, **Eva Garnica** psikiatrak mikrobiotaren eta osasun mentalaren arteko harremana azalduko du eta **Judith Rivas** matematikariak euskal dantzen eta matematikaren arteko lotura liluragarria.

Ikusleek Naukas Bilbaoren ohiko erreferenteak ere aurkituko dituzte, hala nola **Luisma García Escudero** biologoa edo **Daniel Marín** astrofisikaria. Intsektuen begien tolesturen inguruan eta Elon Musk eta Jeff Bezos bezalako teknoligarrek egin duten espazioaren konkistari buruz arituko dira, hurrenez hurren.

Horrez gain, **Antonio Martínez Ron** kazetariak **Eloisa del Pino** Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Goreneko (CSIC) presidentearekin egingo du solas Euskalduna Bilbaoko auditoriumetik.

Bestalde, haurrentzako ekintzak ere izango dira **Naukas Kidsen**. Bi ikuskizun zientifiko eta dozena erdi tailer antolatu dira haurrentzat irailaren 21ean Bizkaia Aretoa - EHUn. Igande horretan bertaratzen direnek aukera izango dute zientzia eta magiaz beteriko ikuskizuna bitzeko, beren planeta sortzeko, itsas hondoan esploratzeko edo etxeeko esperimentuen bidez egunerokotasunean erabiltzeko trikimailuak ikasteko.

Bidebarrieta Zientifikoan ikasturte hasiera

Bidebarrieta Zientifikoan zikloak **Jesús Álvarez-Herms** fisiologoaren konferentziarekin irekiko du denboraldi berria irailaren 17an. Álvarez-Hermsek osasun sistemikoak gizakien garapen biologikoaren oinarri gisa duen ahalmena erakutsiko du, Kilian Jornet atletaren adibidea erabiliz.

EHUko Kultura Zientifiko Katedrak eta Bidebarrieta Kulturguneak antolatutako zikloaren bigarren saioa irailaren 24an izango da. Asteazken horretan, **Iratí Mitxelena** luzera jauzilariek eta CIC bioGUNEko ikertzaileak bere esperientzia azalduko du eliteko atleta bezala.

Erakusketa eta zineforumoa Bizkaia Aretoan - EHUn

Irailaren 20tik 30era, *Fernando G. Baptista*. *Infografia zientifikoaren esploratzailea* erakusketa egongo da ikusgai Bizkaia Aretoa - EHUn. EHuko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Bergarako Laboratorium Museoak antolatutako erakusketak **Fernando G. Baptista**ren "bitxi" infografiko batzuk biltzen ditu. SND Society for News Design erakundeak munduko diseinatzailerik onenaren saria eman berri dio bilbotarrari, *National Geographic Magazine* aldizkari ospetsuan egindako lanagatik.

Bilbo Zientzia Plazaren zortzigarren edizioa zineforum saio batekin amaituko da irailaren 30ean. Egun horretan, Bizkaia Aretoa - EHuko Mitxelena Auditorioan *El enigma Agustina* dokumentala proiektatuko da eta, ondoren, dokumentalaren sortzaileak diren **Emilio José García** eta **Manuel González García** astrofisikariak, eta **Natalia Ruiz Zelmanovitch** protagonista, solasaldian arituko dira.

Bilbo Zientzia Plazaren zortzigarren edizioa zineforum saio batekin amaituko da irailaren 30ean. Egun horretan, Bizkaia Aretoa - EHuko Mitxelena Auditorioan *El enigma Agustina* dokumentala proiektatuko da eta, ondoren, solasaldia egingo da. **Emilio José García** eta **Manuel González García** astrofisikariek eta dokumentalaren sortzaileek, eta **Natalia Ruiz Zelmanovitch** protagonistak hartuko dute parte solasaldian.

Bilbo Zientzia Plaza (BZP) [EHuko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) antolatutako dibulgazio zientifikoko ekimena da, [Bilboko Udalaren](#) eta [Euskampus Fundazioaren](#) babesarekin eta [Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren](#), [Donostia International Physics Centerren \(DIPC\)](#), [Metro Bilbaoren](#) eta [EiTren](#) laguntzarekin.

Programatutako jarduerei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [prentsa-dosierra](#).

NOTA DE PRENSA

Bilbao se convertirá en la capital de la divulgación científica de la mano de Bilbo Zientzia Plaza

La octava edición del festival Bilbo Zientzia Plaza (BZP), organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, regresará del 17 al 30 de septiembre con conferencias, exposiciones, monólogos y espectáculos donde la ciencia será la protagonista

La cita central del evento será un año más Naukas Bilbao, que celebrará su 15º aniversario en una edición especial con grandes novedades

Más de medio centenar de investigadores y divulgadores científicos participarán en las actividades programadas, que tendrán lugar en Euskalduna Bilbao, Bidebarrieta Kulturgunea y Bizkaia Aretoa - EHU

Bilbao, 11 de septiembre de 2025. Bilbao acogerá del 17 al 30 de septiembre la octava edición de [Bilbo Zientzia Plaza](#) (BZP), iniciativa que transformará la ciudad en un espacio de encuentro para profesionales y amantes de la divulgación del conocimiento científico.

Conferencias, talleres, espectáculos, monólogos, una exposición y un cinefórum componen un programa en el que participarán más de medio centenar de divulgadores científicos. Todas las actividades programadas son gratuitas y se distribuirán entre Euskalduna Bilbao, Bidebarrieta Kulturgunea y Bizkaia Aretoa – EHU.

Naukas Bilbao: 15º aniversario

La cita central será una vez más **Naukas Bilbao**, que este año celebra su 15º aniversario y llenará el Euskalduna Bilbao de ciencia y humor los días 19 y 20 de septiembre. Organizado por la plataforma de divulgación científica **Naukas** en colaboración con la **Cátedra de Cultura Científica de la EHU**, esta edición especial aniversario promete grandes novedades.

Destaca la incorporación al programa general de **Naukas Pro**, propuesta en la que científicos y miembros de centros de investigación comparten sus investigaciones y experiencias. Entre otras propuestas, la psiquiatra **Eva Garnica** explicará ante el público la relación entre la microbiota y la salud mental, mientras que la matemática **Judith Rivas** mostrará la fascinante conexión entre las danzas vascas y las matemáticas.

El público también podrá encontrarse con referentes habituales de Naukas Bilbao como el biólogo **Luisma García Escudero**, que abordará las dobleces de los ojos de los insectos, o el astrofísico **Daniel Marín**, que hablará sobre la conquista del espacio por parte de tecnoligarcas como Elon Musk y Jeff Bezos.

Además, el periodista **Antonio Martínez Ron** conversará con **Eloísa del Pino**, presidenta del Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC), desde el auditorio del Euskalduna Bilbao.

Por su parte, el público infantil tendrá su propio espacio en **Naukas Kids**, con dos espectáculos científicos y más de media docena de talleres el domingo 21 de septiembre en Bizkaia Aretoa – EHU. Quienes acudan tendrán la oportunidad de vivir un espectáculo en el que la ciencia y la magia se fusionan, crear su propio planeta, explorar las profundidades marinas o aprender trucos para la vida mediante experimentos caseros.

Apertura de curso en Bidebarrieta Científica

El ciclo **Bidebarrieta Científica** abrirá la nueva temporada el 17 de septiembre con una conferencia a cargo del fisiólogo **Jesús Álvarez-Herms** en la que demostrará el potencial de la salud sistémica como base del desarrollo biológico humano con el ejemplo del atleta Kilian Jornet.

La segunda sesión del ciclo organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU y Bidebarrieta Kulturgunea, tendrá lugar el miércoles 24. La saltadora de longitud e investigadora del CIC bioGUNE, **Iratzi Mitxelena**, contará al público su experiencia como atleta de élite.

Exposición y cinefórum en Bizkaia Aretoa - EHU

Del 20 al 30 de septiembre, la exposición *Fernando G. Baptista. El explorador de la infografía científica* estará abierta al público en Bizkaia Aretoa-EHU. La muestra, organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU y el Museo Laboratorium de Bergara, recoge algunas de las 'joyas' infográficas de **Fernando G. Baptista**, recientemente galardonado con el premio a mejor diseñador del mundo por la SND Society for News Design por su trabajo en la prestigiosa revista *National Geographic Magazine*.

La octava edición de Bilbo Zientzia Plaza culminará el 30 de septiembre en el auditorio Mitxelena del Bizkaia Aretoa - EHU con una sesión de **cinefórum** que incluirá la proyección y el coloquio posterior del documental *El enigma Agustina*. Los astrofísicos **Emilio José García y Manuel González García**, creadores del documental, y su protagonista, **Natalia Ruiz Zelmanovitch**, participarán en el coloquio posterior.

Bilbo Zientzia Plaza (BZP) es una iniciativa de divulgación científica organizada por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#), con el patrocinio del [Ayuntamiento de Bilbao](#) y [Euskampus Fundazioa](#), y la colaboración del [Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco](#), [Donostia International Physics Center \(DIPC\)](#), [Metro Bilbao](#) y [EiTB](#).

Para más información sobre las actividades programadas, consulta el [dossier de prensa](#).